

AITA JULIAN ALUSTIZA JAUREGI

Duela 83 urte Gabirian jaiotako frantziskotar hau, urte askoan Euskal Herrian barrena apaiz-ministerioan aritu ondoren, Arantzazun bizi da aspaldian.

Sermoilari trebe izateaz gain, bere jaioterriko **Aztiria** auzoaren izenaz ere ezaguna dugu idazle bezala.

Olerkari fin eta oparoa, idazlanik gehienak *Egan*, *Arantzazu* eta *Goiz Argi* aldizkerietan argitaratu ditu.

Aipagarriak dira, era berean, kaleratu dituen bi liburuak:

Lihoaren penak eta nekeak (1981) eta *Euskal baserriaren inguruan* (1985).



Zure liburuetan ohitura eta usadioak isladatzen dituzu euskara jator eta aberatsean; konta begiguzu nola sortu ziren liburu hauek.

Nere apaiz-ministerioari jarraituz, aitona-amona asko ezagutzeko aukera izan nuen, eta garaiz konturatu nintzen euskara-maisurik jatorrenak ere euren artean zeudela frankotan. Haiekin izandako solasaldi luze eta gozoetan gauza asko jaso nituen; besteak beste, ihagintzaren inguruan gai andana eskuratu nuen.

Sermoigintza utzi nuenean, lagun batzuen eraginez, batutakoak apur bat moldatuta, **San Isidro 1975** lehiaketara bidali nuen *Lihoaren penak eta nekeak* izenburupean. Bigarren saria eman zidaten arren, ni pozik geratu nintzen, Aita Onaindiaren lan bati emandako hirugarren sariaren aurretik geratu baitzen nerea. Artean liburu argitaratu

gabe zegoela *Jakingoek* Venezuelako **Andima-77** saio-lehiaketara bidaltzea proposatu zidaten *Lihoak lorea urdin* izenburuarekin. Lehendabiziko saria jaso zuen han; zuzenketa batzuren ondoren, eta jatorrizko izenarekin 1981ean kaleratu zuten.

Esan gabe doa gogotik poztu nintzela, gure aitona-amona zaharrei egiten zitzairen omenaldi bat bezala jotzen bainuen.

-Eta Euskal baserriaren inguruan liburu...

Hori ere lehenengoaren antzera sortu zen, aurretik jasoak nituen gaiak moldatu eta jantzita. Dena dela, badirudi bigarren liburuan agertzen diren baserriaren inguruko ohiturak gertuagokoak direla, bizimodu hori ezagutu dutenak oraindik badirela. Aldiz, lihalanetan jardundakoak ez dago aurkitzerik. Gaur egun ez legoke liburu

hori egiterik. Nik neuk erabili nituen lekukoak, liburu azaldu zenerako, hildak zeuden gehienak eta ez zuten euren izenak paperean ezarrita ikusteko pozik izan.

- Zergatik aukeratu zenuen *Lihoaren penak eta nekeak* izenburua?


Liburuaren sarreran azaltzen ditut horretarako arrazoiak: batetik, lihoa hitza bera: lihoak badauzka, euskaldunoi gogoko zaigun bezala, 10 bat izen gutxienez: **liñoa, liñua, liñue, linoia, liyoa, liyue, ligoa, lue** eta beste. Jakina, bat aukeratu behar ordurako euskara batua aurrera zihoran eta horregatik aukeratu nuen lihoa, h batekin erdian, horrek esan nahi baitu erdian zerbait badoala; Naparruan esango dute **ligoa**, guk esaten dugu **liñoa**, baina guztiak dira euskara. Bestalde, lihozko ehuna oso ona izan arren, jantziak edo izarak egin aurretik



MIZKE Gozotegia

- Gozoki eta fruitu eiharrak.
- Ezkontza, bataio eta lehenengo jaunartzerako enkarguak hartzen dira.

Kale Zaharra, 3
Tfnoa: 78 28 14



PEUGEOT-TALBOT OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50
OÑATI



lan ikaragarria zuen, baita egin ondoren ere. Erabiltzen ez ziren izarak ere, kutxetan gordetzen zirenak, urtero-urtero garbitu behar izaten ziren maiatza heltzen zanean. Horregatik esaten zuten gure zaharrek: *ehunak ehun lan* -hemen Oñatin *ehun bihaleku-* eta *ehunaren nekeak akaberagabekoak*.

- Zeintzuk dira pena edo neke horiek?

Bizkai aldeko ipuin polit batek dioenez, lamien atzaparretatik libratzearen, eguna argitu artean kontatu zituen baserritar batek lihoaren penak: *lehenengo pena, soluan atara, gero sikatu, gero pozuan beratu, gero sikatu, gero garramatu, gero jo tsagiaz edo mazuagaz, gero ezpatatu, gero txarrantxatu, gero goruan ipiñi, gero aria ein, gero matazatu, gero egosi, gero errekan jo, gero aildu, gero euna ein, josi jantzia...*

Neuk ere nere liburua ipuinak dioen 14-15 penen inguruan egituratu nuen.

Lihoa nolakoa den ikusteko, hona ekarri dudun basaliho hau baino sendoago izango zen ereiten zena, baina, dena dela, honek ere badauzka liho bakoitzak dauzkan hiru gauza: azala, mintza eta txotxa. Arazo guztia zen txotx hori eta azal hori kendu egin behar zirela, bakar-bakarrik mintza geratu behar zela, hiru harigai motak harrapatzen dituen mintza.

- Zeintzuk dira harigai horiek?

Hiru bereizten dira kalidadearen arabera: **amukoa** -finena-, **mulioa** eta **mukarra**; **kirratsa**, **amelua** eta **karraskixa** Oñati aldean. Baina harigai atera aurretik lan luze eta aspergarriak egin behar ziren: lehendabizi soruan zuztarretik atera, ez garia bezela moztu, baizik eta atera, zuztarrean bertan harigai oso ona izaten zelako. Gero sikatu, zabal-zabal jartzen zuten lehendabizi soruan bertan eta gero gabaran askotan; gero garramatu, hazkorra kendu garramarekin; gero

putzuan beratu, eta gainera ez edozein putzutan; hemen Arantzazun, esate baterako, hor duzue erreka, baina ura hotza zen eta hori ez zuten nahi; eramaten zuten Artaso aldera, handik datozen errekaetoetara eta han egiten zituzten linaputzak eta han beratzen zuten 15 bat egunez; noizean behin joaten ziren ikustera eta gero ekartzen zuten eta berriz ere zelaietan sikatu. Gero labean egosi eta mazuaz jo azala kentzeko. Gero trangatu eta ezpatatu. Hori barruko txotxa kanporazeko izaten zen eta hauts asko ateratzen zuen. Ondoren txarrantxarekin orraztu, eta hor ateratzen ziren hiru harigaiak: amukoa -onena- maindireak, izarak eta horrelako gauzentzako ehungaia izaten zen, baita andregaiak senargaiaren alkandora egiteko ere; mulioarekin frakak eta horrelakoak egiten ziren eta azkenik, mukarra sakuak eta antzeko gauza bastoentzako geratzen zen. Sua pizteko ere erabiltzen zuten askotan.

Aiton-amona zahar
gehienek,
lihagintzaren
inguruko zerbait
galdetu ezker,
suspertu bat hartzen
zuten euren
gaztaroko denbora
gogoratu.

- Euskal gizartean garrantzi handia izan du lihagintzak?

Bai, aparteko garrantzia izan du liho-lanak Euskal Herrian. Ez daukazue haxe gogoratu besterik: neskaxei, hamaika urte betetzen zituztelarik, soro-mutur bat ematen zitzaaien, lihoa erein eta ezkontzarako zuritasuna prestatzen has zitezten.

- Zenbat lez ereiten zuten?

Gizonezkoei ez zitzaien gehiegiz gustatzen, baina beti etxerako behar zirenak behintzat, eta horrezaz gainera saltzeko ateratzen baldin bazuten, bet zetorren ondo diru apurren bat. Baina nik uste dut gehienek etxerako bakarrik egiten zutela. Etxerako urtero behar zirenak, eta gero ezkontzarako prestamena ere luzea izaten zen badakizue zenbat gauza eramaten zuten arriean.

Hori guztia liho-hariarekin egina izater zen, eta lihoarekin egin ez bazen nolako burlak: *hi, aizan, ez omen zaior iritsi, erosi beharra izan din*. Etxekoarekin egina ez bazen, oso gaizki gelditzen zen.

- Noiz arte erein zen lihoa Euskal Herrian?

Ni mutikoa nintzela esaten zuten Zerainen ereiten zutela, baina nik ez dut ezagutu. Nik uste dut 14ko gerra orduko galduta edo galtzen zegoela ordurako kanpotik beste oihal klase batzuk sartzen zirelako, asko menuzagoak, hemen esaten zuten bezala, iraupen gutxikoak, baina lanik ez zutenak.

Horregatik lehenengo iruleak, hariak egiten zutenak, eta gero ehuleak hariarekin ehuna gauzatzen zutenak, galduz joan ziren. Gerra aurretik gutxituta zeuden ehuleak, lana bazuten baina horrekin bakarrik ezin bizi eta beste ofizio batzutan ere jardun behar zuten. Hala esan zidaten mende hasieran Oñatin zeuden dozenerdi ehuleren senitartekoak.

- Emakume ala gizakumeen lanak ziren lihoarenak?

Denek egin behar izaten zuten, hariak atera aurretikoetan gizonek ere egiten zuten, oso lanbide txarra zen-eta mazoaz jotzerakoan azalak eta txotxak hauts asko botatzen zuten eta hauts oso mina zen. Lihaputzura eramaten eta ekartzen ere gizonak ibiltzen ziren gurdiaekin. Baina gero suhasketak

VICTOR FREIRE e HIJOS

Igeltzeritza

• Erreformak orokorrean • Teilatua eta fatxadak
konponketak • Biltegia berezian

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69

BITTOR

ALTZARIAK


PROIEKTU BIDEZ

ETXERAKO ALTZARI GUZTIAK

FAGOR

Sukalde eta elektragailuak

San Lorenzo, 1 eta 41. OÑATI
Tfnoa: 78 16 08 eta 78 34 21. Faxe: 78 34 21



goruan, edo guk esaten dugun lineaian, haria egitea emaztekien lanak ziren. Linarrian jo eta horiek gizonetzkoek egiten zuten, baina haria egitetik aurrerako lanak emakumezkoenak ziren. Ez banaka, ordea, etxe batean biltzen baitziren emakumeak goruetan egiteko. Hemen Arantzazun, esate baterako, Zapiarben elkartzaren 8-10 etxetatik. Ematen zuten arrazoia argia behar zutela zen; jurgitan egiten zuten lana jeneralean, ez zen kinkerik-eta erabiltzen, eta batean bat egoten zen sua argitzeko eta pizteko. Esaten zuten hori zela arrazoia, baina hori bakarrik ez zen: altxatzen zirenean berealdiko festa zen garrantzitsua! han kontuak kontatu eta... gero ondoren dantza egin, eta batzuetan enteratzen ziren mutilak ere eta errondari joaten ziren. Orduko festa hori garrantzitsua zen. Baina festa, aurretik laian egiten zela, garrantzitsua izan behar zela, eta gero gaueko 9etatik 12etara-edo egiten zuten haria. Erandietako Apoloniak esaten zidan orduan emakume gaztea zela eta ume berriak zituela, eta nolako pena izaten zuten: Zapiarbera haria egitera ezin ziren joan!

Hortik aurrerako lanak, matazatu, kibatu eta ehulearengana eramanez, hantzetakoak bakarka egiten zituzten emakumeek.

Neguko lana izango zen hori?

Bai, neguko lana; agorlihoa, hemen egiten zirenean ereiten zena, artoaren aurretik egiten zuten eta, jakina, lan hauek denak egiteko, baserriko beste lanek aurreratuta egon behar zuten. Horregatik esaten da ehunak ehun lanak egiten direla. Baina bazuen ere atsegina ere. Orduan ez zegoen zerbait irriti ez telebistarik eta han ibiltzen zuten kontu-kontari eta batzuetan

kontalari bereziak ere eramaten zituzten. Baziren auzoetan-eta kontalari bikainak, baina orduan edozeinek zuen kontuak kontatzeko aparteko eskola, lehendik zetorren eskola. Esaten dute haiek ez zutela kulturarik... Guk baino gehiago! Nik jakin nahi nuke haiek zeukaten kultura!

Nere arreba, esate baterako, kontatzen zizkidan ipuinak orain 30-40 urte. Bueno, ba orain kontatzen dizkit eta ez dute lehengo graziaz. Non galdu du? ba ez dituela kontatu ordutik. Hori alde batetik, eta bestetik, telebista dela-eta, burua apur bat nahastuta daukela, kutsatuta. Horregatik lehenagoko zaharrek niri inbidia ematen zidaten, kutsatu gabekoak ziren.

- Zure liburuetan badago halako mezu garbi bat...

Bai, alegia, gure guraso zaharrek nekazari giro batean euskara, gure hizkuntza maitea, bizi, hornitu eta aberastu zuten bezalaxe, gauza bera egin eta bizi dezagula guk ere gure eguneroko industri eta teknika giro honetan.

Mitxelena esaten zuen, Xenpelarrek euskaraz berak baino hobeto zekiela, baina haren euskarak beretzat ez zuela balio beste gai batzuetan sartu garelako. Hura oinarri bezala hartu behar dugu eta gero haiek giro hartan egin zutena guk gaurko giroan egin, baina hura ahaztu gabe, bestela gelditzen gara zuztarrik gabeko arbolak bezala. Hori da daukagun arriskurik handiena. Eskoletan esaterako, euskara ikasten dute, baina ez daukate zuztarrik gehienek; zuztar hori beste toki batzuetan bilatu behar da, edo zaharretan edo klasikoetan, bertsolarietan.

Bertsolari baten esanahi guztiak ondo jasotzeko euskara ondo jakin behar da, barrutik, errotik. Ni horregatik harrizten naiz ikaragarri Arestirekin. Aresti, nire iritziz, promesarik handienetakoa izan zuen: euskaldun berria izanda, nola jaso

zuen hark euskararen muina; ez zuen oraindik behar bezala euskara erabiltzen, baina sena hartuta zuen; asko egin zuen, baina askoz gehiago eman zezakeen bizi izan balitz, bai poesian, bai antzerkian, bai nobelagintzan.

Lihoa zenbat eta gehiago lixibatu edo garbitu, orduan eta zuriago eta leunago.

- Eta orain baduzu libururen bat esku artean?

Orain esaten didate nire bizitzako diarioa egiteko, baina horretarako ez daukat gairik batuta aurreko bi liburuentzat nuen bezala. Dena dela, zerbait badut: gerra hasi zen egunean eman nuen lehenengo meza Aztirin eta handik urte batera Valladolid aldera bidali ninduten; 6 urtean han egon nintzen erdi desterruan, eskutitzak euskaraz idaztea ere debekatuta nuelarik. Orduan poesia batzuk egin nituen eta horiek, gaztaroan ondutako beste batzuekin batera, argitaratzeko esaten didate. Baina honek aurretik argibideren bat behar du: hasi eta ia amaituta nuela, telebistan elkarrizketa batean entzun nion bati euskal kultura zapaldu dutenak elizgizonak, baita Arantzazukoak ere, izan direla. Horrek amorrua eman zidan eta hitzaurrea luzatu egin nuen, Arantzazutik egin denari buruzko azalpenak emanez. Ze orduan, gerra ondoren, euskara guztiz baztertua eta debekatua egon zenean, Larrekok zioen bezala, itzaropena erabat galduta zegoenean, zeinek eutsi zion euskarari? Hemendik ateratako euskarazko orri eta egutegiaz eta misiolariok herririk herri ibiltzen ginenean, zertan ari ginen ba? Horren inguruko azalpenak ematen ditut hitzaurrean.

**VRZELAI
DENDA**

Kale Barria, 26
OÑATI



**ELKORO C.B.
KRISTALDEGIA**
San Lorenzo, 13
Lazarraga, 3 behea
Tfnoa: 78 24 06 OÑATI

**Ispiluak
Lunak
Beiradurak
Segurtasun-kristalak
Aluminiozko lehiu
eta pertsianak
P.V.C.
Poliuretano
CLIMALIT**



**Artisan Lan exotikoak
Keramika
Zurezko gaiak
Arropa, Larrua
Apainketa**
Bakargune kalea, 13
OÑATI